

HEZKUNTZA. Ia sei milioi euro bereiztea aurreikusi dute hitzartutako ikastetxeetako langileen baldintzak hobetzeko

Hezkuntzaren hobetzea finantzatzeko akordioa lortu dute UPNk eta CDNk

Ingelesaren ezarpen goiztiarra hedatzeko araudia urte bukaera baino lehen onartuko dela esan du Miguel Sanzek

Alberto Barandiaran | IRUÑA

Unibertsitatetik kanpoko irakaskuntzako irakasle taldeak berri; hitzartutako ikastetxeetako langileen baldintzak publikoekin berdindu eta moduluak eguneratu; ingelesaren ezarpen goiztiarra ziurtatu. Hori guztia finantzatzeko lege proiektua onartu zuen atzo Nafarroako Gobernuak, herenegun CDN alderdiarekin akordioa lortu eta gero.

Miguel Sanz eta Juan Cruz Allik atzo adierazi zutenenez, lege proiektua «goranahia» da, eta mugarririk «Nafarroako hezkuntzaren kalitatea goi mailakoa izan dadin».

Nahiz eta testua orain Nafarroako Parlamentuak onartu behar duen eta horretarako talderen baten zuzenketak gainditu beharko dituen —UPN eta CDNren botoak ez dira nahikoak lege proiektua onartzeko—, sei milioi euroko diru sailak aurreikusi dituzte bi alderdiok.

Aurretik egindako bi hitzarmen oinarriak

Atzo, ezohiko biltzarrean, onartutako testuak 2001eko maiatzaren 31n Hezkuntza Departamentuaren eta AFAPNA, CCOO, CSI-CSIF eta UGT sindikatuen artean sinatutako hitzarmena du abiapuntua, eta baita sindikatuek eta enpresaburuen elkarteek 2000ko abenduaren 20an sinatutakoa ere.

Bertan hartutako akordioek diru sail propioak eskatzen zizuten garatuak izateko, eta hori da atzo onartutako lege proiektuaren helburua.

Finantzaketari esker, Nafarroako Gobernuak saritu egingo du irakasleen erretiro aurre-ratua 60 urtetik gorakoen kasuan, eta laguntza LOGSEK aurreikusten duenari erantsiko zaio.

Ia 14.000 euro jasoko dituzte 35 urte baino gehiago lanean egon direnek. Horri esker, irakasle taldea berri ahal izango dela nabarmendu zuen Allik. Proiektuaren arabera, orobat, hitzartutako ikastetxeetako irakasleen lan baldintzak publikoekin parekatu nahi dira, eta ordutegiaren murrizketa sarituko da.

Halaber, hitzartutako irakaskuntzarendako moduluak eguneratzen ditu lege proiektuak.



42.009,57 euro izango dira Haur Hezkuntzako bigarren ziklorako; 48.600 Lehen Hezkuntzarako; 57.977,69 euro DBHko Lehen Ziklorako; 67.6312,73 DBHko Bigarren Ziklorako; 54.016,85 DBHko aniztasun curriculumerako, eta beste. Proiektuan aurreikusi dute

egun sare publikotik kanpo dauden hainbat irakasle funtzionario egitea, esaterako Iruñeko udal ikastoletakoak, Baztango ikastolakoak eta lanbide tailerretako irakasleak.

Juan Cruz Allik nabarmendu zuen udal ikastolen gaian akordioak «langileen eskakizunen

nahiak betetzen» dituela, eta helburua sare publikoekin parekatzea zela.

Atzerriko hizkuntza 3 urtetik aurrera ezartzeko akordioa

Halaber, bi alderdiok hitzartutako lege proiektuak Gobernuak baimentzen du Haur eta Lehen

IKASTOLAK

Proiektuak bideak jarriko ditu Iruñeko udal ikastoletako langileak funtzionario bihurtzeko

MODULUAK

Hitzartutako ikastetxeendako moduluak eguneratuko dira

Hezkuntzako ikastetxe guztietan ezar dezan atzerriko hizkuntza —ingelese batez ere, baina baita frantsesa ere— bitarteko hizkuntza gisa. Sanzek argitu zuen «ikastetxe guztietan» ezarriko dela, eta derrigorrezkoa izango dela.

Ingelesaren ezarpen goiztiarra asko kritikatu dute euskarazko irakaskuntzaren aldeko sindikatu eta elkarteek, eta D eredua gutxiesteko egitasmoa dela kritikatu izan da behin baino gehiagotan.

Sanzek esan zuenez, urte bukaera baino lehen, lege proiektu hau onartzekotan, Gobernuak kaleratuko luke hezkuntza ereduak egokitzeko araudia. Nolanahi ere, euskarazko irakaskuntza ez dela ukituko esan zuen Sanzek, «baduelako lehendik araudi nahikoa».

KALITATE LEGEA

Lagunak ez du garbi ikusten

Jesus Laguna Nafarroako Hezkuntza kontseilariak dudak ditu Espainiako Gobernuak prestatzen ari den Kalitate Legearen inguruan, Nafarroan hartutako hainbat erabakiren «kontra» egin dezake-elakoan. Lagunak, nolahi ere, egungo legeria eguneratu behar zutela azpimarratu zuen, eta gogoratu zuen Nafarroak parte-hartze aktiboa izan zuela lege proiektuaren lehen erredakzioan. «Nafarroak egun daukan modeloari eutsi nahi dio», adierazi zuen Lagunak, «baina egin behar diren moldaketa guztiak egin eta gero, esperientziak erakutsi digulako egokia dela ikasle guztiei erantzuna ematea eta denentzako kalitatezko irakaskuntza eskaintzea». Nafarroako Parlamentuan,



PSNk egindako galderari erantzunez, legeak Nafarroan izango dituen ondorioez aritu zen Hezkuntza kontseilaria. Adierazi zuenez, Nafarroak hiru arlo azpimarratu nahi du, eta azpimarratuko, Ministerioaren aurrean: DBHko ikasleen ebaluazio eta promozioa, aniztasuna

zaintzeko Nafarroako Hezkuntza Departamentuak duen egitasmoa, eta Lanbide Heziketaren garrantzia. «Lehen mailako garrantzia du», esan zuen. 0 eta 3 urte bitarteko zikloari dagokionez, Lagunak adierazi zuen *eskolaurreko hezkuntza* izena hartuko duela, eta Nafarroako iritziak gainerako hezkuntza departamentuen oniritzia jaso duela. «Guk proposatu genuen araudiari malgutasuna ematea, eta erki-dego autonomoei hain zuzen ere autonomia handiagoa ematea». Haur Zikloan atzerriko hizkuntza sartzeari buruz Lagunak esan zuen duela hiru urte hasi zela Nafarroa gai horrekin, eta DBH etapa «funtsezkoa» dela esan zuen. «Ez dut uste ibilbideak baztertzailak direnik, eta gogoratu behar dugu Nafarroan DBHko titulua lortzen dutela beste elkargoetan baino jende gehiagok». Batxilergoan jarri nahi den azken frogari buruz, Europarekin berdintzeko helburua zuela esan zuen.